

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 81/2020 Foru Agindua, martxoaren 25ekoa, Eltziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2019ko irailaren 18an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak indarreko HAPOaren 2. aldaketa puntualari buruzko ingurumen agiri estrategikoa jaso zuen Eltziegoko Udalarengandik, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera, baita hirigintza agiria ere.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko martxoaren 18an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/146 espediente).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Proposatutako aldaketa puntualak 4 helburu ditu, eta haietako bakoitzak eremu desberdin batean du eragina:

1. Lerrokadura aldatzea Valdelana upeltegia barnean hartzen duen ELC.13 antolamendu xehatuko eremuan.

Proposatzen da aldatzea 8 poligonoko 677 lurzatiaren ipar eta ekialdeko muga ezarritako lerrokadura, finkaren baldintza geografikoei egokitzeko, aldameneko elementuei dagokienez, eta egin beharreko euste hormak aprobetxatu ahal izateko etorkizunean eraikina handitu behar izanez gero. Era berean, aldaketa horri esker lurzatiaren ehuneko 70 okupatu ahal izango da, hala egitea egokitzen joz gero, HAPOan xedatu bezala.

2. 11 poligonoko 338 lurzatiaren lerrokadurak eta zonakatzea egokitzea katastroko eta benetako konfigurazioari.

Proposatzen da udal araudia egokitzea, hain zuzen 11 poligonoko 247 eta 388 lurzatiei buruzko zatia, hartara bat etor daitezela lurzati bien katastroko lurzati mugaketa eta plan orokorra eta, hortaz, koherenteagoa izan dadin.

3. Berrantolatzea 8 poligonoko 71 lurzatiaren kalifikazioa eta hori baliatzea basoak leheneratzeko partzuergoetako bati esleitutako azalera handitzeko.

8 poligonoko 71 lurzatiak 4.800 m²-ko azalera baino handixeagoa du eta Eltziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinen barruan dago. Finka horren azalaren zatirik handienak kalifikazio hau dauka: "Nekazaritza interesa dela eta babestutako zona – Nekazaritza eta abeltzaintza

eremuak eta landazabala –Trantsizioko landa paisaiako eremuak“. Gainerakoa ipar-ekialdeko zonan dago, 1.000 m² inguruko azalera dauka eta “Babes bereziko zona: basogintzako balioa” kalifikazioa.

Lotzen da babes berezia duen aldeak kalifikazio hori duela abarizti (*Quercus coccifera*) txiki bat dagoelako, zeina eskualdeko landaredi autoktonoaren zati baita. Finka okupatzen duen muino txikiaren goiko aldean dago, eta jarraipena ematen diote aldaketa puntualaren eremutik kanpo dauden bi bizkarrek; haietan ez dago mahastirik, baina bai albiziak (6220* Europar Batasunaren intereseko habitata) eta zuhaixka autoktonoak; haien artean, nabarmentzekoak dira beste abaritz ale batzuk.


Sustatzaileak adierazi duenez, ortoargazkiak eta tokira bertara egindako bisitak oinarritzat hartuta, lurzatiaren 500 m² inguruko eremuan biltzen da batez ere abariztia, eta ez HAPOko lurzoru urbanizaezinen zonakatzeko planoetan ezarritako 1.000 m²-ko azalera. Mota horretako landaretzaren gainerako aleak lurzatiaren malda handieneko eremuetan daude, inguruan mugatuta dauden basogintza interesa dela eta babestutako zonetan bezala, zeinek orobat biltzen baitituzte landu gabeko eremuak.

Aipatutako eragileak abiapuntutzat hartuta, planean planeatutako kalifikazioa mantentzeko abarizti eremuan eta lurzati malda handieneko eremuetan, zeinek ez baitute ziurrenik hartuko nekazaritza edo abeltzaintza jarduerarik, eta gainerakoa gehi liteke kalifikazio honetara: “Nekazaritza interesa dela eta babestutako zona – Nekazaritza eta abeltzaintza eremuak eta landazabala –Trantsizioko landa paisaiako eremuak“.

Horrenbestez, eremua berrantolatuko da eta “Trantsizioko landa paisaiaren gaur egungo eremua”ren zati bat “Babes bereziko zona: balio naturala” eremuaren barruan sartuko da, eta alderantziz. Aldaketa egin ondoren, “Babes berezia”ri esleitutako azalera 800 m² ingurukoa izango da.

Aurreko horrez gain, “Babes bereziko zona: balio naturala” eremuaren azalera murriztearen kontraprestazio gisa, oso txikia izanik ere, planteatu da birkalifikatzea Eltziegoko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak hitzartutako baso partzuergoetakoren baten alboan dagoen udalaren lurzatiaren bat, azalera handitzeko eta landare autoktonoak landatzeko. Lurzati hori “Trantsizioko landa paisaia” izatetik “Basogintza interesa dela eta babestutako zona” izatera igaroko litzateke. Birkalifikatu beharreko finka izango litzateke 10 poligonoko 288 lurzati: 1.045 m²-ko azalera dauka eta 10 poligonoko 271 lurzatiaren ondoan dago. Azken hori basoak leheneratzeko 325 zenbakiko partzuergoaren zati da. Beraz, birkalifikatu ondoren, lurzati aipatutako partzuergoari atxikitzeko izapideak egingo dira.

Hurrengo irudian ikusten da aldaketa puntualaren sustatzaileak 8 poligonoko 71 lurzatiarako egindako proposamena:



HAPOko indarreko proposamena

Aldaketa puntualeko proposamena

4. Aldatzea ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren parametro estetikoak.

ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren arau espezifikoen parametro estetikoak aldatu nahi dira, eremuaren eraikuntza tipologiei hobeto egokitzen zaizkienak ezartzeko. Alboko ELC.06 eremurako ezarritakoen antzekoak izango dira, bai eta ELC.07 eta ELC.09 eremuetarako ezarritakoen antzekoak ere, zeinetan dentsitate txikiko bizitegi areak jarri baitira.

1.2. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaltzen denez, aipatutako aldaketa puntualean osatzen duten 4 helburuetako bakoitzerako zenbait aukera hartu dira kontuan:

1. Lerrokadura aldatzea Valdelana upeltegia barnean hartzen duen ELC.13 antolamendu xehatuko eremuan.

“0” aukera edo ez jardutekoa: Egoera geldikorrek ondorio zuzenak ditu lurzatiak okupatzen duen upeltegiaren etorkizunean, handitzeko izan dezakeen behararen aurrean. HAPOan aurreikusitako lurzatiaren zati bat lagatzea, bide bat egiteko lurzatiaren iparraldean. Horrek lurzatiaren azalera eraikigarria murriztea dakar, zeina berez HAPOak lehendik ere ehuneko 70era murriztuta baitago, eta horra ezingo da iritsi, aurrekoaren eta lurzatiak jasango dituen eraginaren ondorioz (jabari publikoak).

“1” aukera (hautatutakoa): Aldaketa puntualean proposatutako aukerak muga horiek saihesten ditu eta, gainera, ez du eraginik lurzatiaren ipar eta ekialdetik doazen errepidearen eta errekaen jabari publikoko zonan, baina beti ehuneko 70eko gehieneko eraikigarritasuna muga delarik.

2. 11 poligonoko 338 lurzatiaren lerrokadurak eta zonakatzea egokitzea katastroko eta benetako konfigurazioari.

“0” aukera edo ez jardutekoa: Gaur egungo egoerari eustea; egoera horretan, 11 poligonoko 338 lurzatiaren zonakatzea eta lerrokadurak ez lirateke bat etorriko katastroko errealitatearekin.

“1” aukera (hautatutakoa): saiatu da zuzentzen HAPOa izapidetu zen unean identifikatu ez zen egoera bat; zuzendu beharra dago, katastroa egokituz benetako egoerari. Horretarako, eraginpeko lurzatiaren katastroko trazadura zuzendu behar da, baina bien azalerari eutsiz, jabeen kalterik ez sortzeko.

3. Berrantolatzea 8 poligonoko 71 lurzatiaren kalifikazioa eta hori baliatzea basoak leheneratzeko partzuergoetako bati esleitutako azalera handitzeko.

“0” aukera edo ez jardutekoa: Gaur egungo egoerari eutsiko litzaioke.

“1” aukera: aurkitzea ekoizpen ezaugarri eta neurri antzekoak dituen lurzati bat, babes figura horren pean ez dagoena. Udalerriak, baina, ez dauka halako ezaugarriak dituen lurzatiarik, erabileraren horretarako egokiak diren udalerriko ia lurzati guztiak ustiatzen ari direlako; eta ustiapenik ez dutenak babestuta daude.

“2” aukera (hautatutakoa): hautatutako 71 lurzatiaren aldatzea, eta haren babesgabatasun partziala truke batekin konpentsatzea. Aukera honetan egin nahi dena da beste hitzarmen bat Arabako Foru Aldundiaren baso partzuergoarekin, 8 poligonoko 71 lurzatiaren 200 m² inguruko abariztia —gaur egun babestuta dagoen 1000 m²-ko azaleratik kendu beharrekoa— konpentsatzeko lurzati baten lagapenarekin; hain zuzen, 10 poligonoko 288 lurzatiaren, askoz azalera handiagoko ekoizpen ahalmena duena.

4. Aldatzea ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren parametro estetikoak.

Honako honetan ez da aukerarik aztertu, sustatzaileak adierazi baitu neurriak ez duela in-
gurumenean ondorio nabarmenik.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko irailaren 20an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Lauki honetan, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	✓
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	✓
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Energiaren Euskal Erakundea	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	✓
Eltziegoko Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	✓

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/146 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du ez dela interes arkeologikoko ezer aurkitu eta, hortaz, ez dagoela eragin arkeologikorik.
- URA – Uraren Euskal Agentziak 2019ko urrian lehen txostena egin zuen, eta bertan zehazten zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitzat joz gero gaiaren gainean informatzeko, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritz.

2019ko azaroaren 22an bigarren txostena egin zuen, eta han adierazi zuen aldaketaren xede diren eremuak Ebroko Mugape Hidrografikoko erkidego arteko arroetan daudela, Ebro Unitate Hidrologikoan. Jabari publiko hidraulikoari (JPH) eta haren eremu babestuei buruzko gogoeta hauek egin zituen:

– 10 poligonoko 288 lurzatian eta ELC.13 antolamendu xehatuko eremuan (Valdelana upel-
tegia) lerrokadura aldatzearen ondorioz garapen berriak egin behar badira, horretarako nahitaez
baimena eman beharko du Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, URAn izapideak egin ondoren.
Halaber, eta uholde arriskuari dagokionez, baldin lurzati horietan jardunen bat proposatzen
bada, honako hauek bete beharko dira: Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia eta EAeko ibaiak
eta errekek antolatzeko ALPa.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketa puntualaren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, eta han nabarmendu du soilik 8 poligonoko 71 lurzatiaren kalifikazioa berrantolatzeak duela eragina lurzoru urbanizaezinean eta, beraz, gainerako aldaketak ez direla aintzat hartuko Nekazaritza Zuzendaritzaren eskumenen ondorioetarako. Ondorio gisa, Nekazaritza eta Basogintzako ALPari dagokionez, aldaketaren aldeko txostena egin da, aplikatzekoa izan daitekeen araudi sektorialeko xedapenak gorabehera, baina ñabardura batzuk egin dira lurzoruaren kalifikazioa dela eta.

• IHOB Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenetan lurzoru kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez daude jasota lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoru inbentarioan”. Era berean, hau dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

• Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak txosten bat helarazi du, Natura Ingurunearen Zerbitzuak egina. Han, adierazi da txostenak aztertzen duela, nagusiki, 8 poligonoko 71 lurzatiarako proposatutako birkalifikazioa, aldaketa puntualeko gainerako hiru aldaketek hiri lurzoru finkatuan dutelako eragina eta, duten tipologia dela eta, jotzen delako ez dutela eragin esanguratsurik natura ondarean.

Aldaketak 71 lurzatian izango litzuzkeen ondorioak azaldu ondoren, zalantzan jarri du sustatzaileak planteatutako birkalifikazioa, adierazi baitu ez direla jasotzen aurreko urteetan egindako luberritze jarduerak, eta jardun horiengatik ordaina eskatzen du.

• Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena egin du, ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren parametro estetikoaren araudia malgutzeari buruzko aldaketa dela eta. Eremu horretan dauden eraikinen aurrekari apartatu baten ondoren, jasotzen du hiri multzo bat dela, eta haren berezitasunaren balioa nabarmendu behar duela udal plangintzak, araudi orekatua lortu dadin, jabeek etxebizitzak beren beharretara egokitzeko aukera izateko eta, aldi berean, multzoaren autentikotasuna eta balio bereziak babesteko. Horiek horrela, ondorioztatzen du parametro estetikoak malgutzeko proposamenak epe luzera ez duela ekarriko hiri multzoa hobetzerik eta, horren ordez, sakonago aztertu beharko lirakekeela gaur egungo eraikinen elementu arkitektonikoak (zokaloak, eskailerak, erlaitzak, baoak, lurzati itxiturak...), bolumentria eta lurzati okupazioa, luzaroan iraun beharko luketen baldintza aldagaitzak zehazteko helburuarekin.

• Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak txostena bidali du, eta han adierazi du ez dagoela inon jasota meatzaritza jarduera aktiborik dagoenik, indarrean dagoen meategien uztailaren 21eko 22/1973 Legeak eta hura garatzeko gainerako araudiak araututakorik.

3. Eragina jaso dezaketen ingurumen balio handiagoko elementuak. Ingurumen inpaktu nagusiak

Lehenik eta behin, eta kontuan hartuta aipatutako aldaketa puntualaren xedea dela aldaketak egitea lau eremutan, lehenengo biei dagokienez, hau da, lerrokadura aldatzea Valdelana

upeltegia barnean hartzen duen ELC.13 antolamendu xehatuko eremuan, eta 11 poligonoko 338 lurzatiaren lerrokadurak eta zonakatzea egokitzea katastroko eta benetako konfigurazioari (biak hiri lurzoru finkatuan daude), ez da espero inpakturik izaterik ingurumen balioa duten elementuetan. Lehenengo kasuan, lerrokadura aldeak oso txikiak dira eta, edonola ere, hautatutako lerrokadura aldatzeko aukeraren bidez ez litzateke eraginik sortuko upeltegiaren eremuaren ekialdean dagoen El Valle errekaaren jabari publikoko zonan, hain zuzen horixe baita inguru hartako ingurumen elementu aipagarria. Bigarren kasuari dagokionez, zehazki 11 poligonoko 338 lurzatiaren lerrokadurak eta zonakatzea egokitzea katastroko eta benetako konfigurazioari, benetako egoerara doitze hutsal bat egingo denez eta hiri lurzoruko eremu urbanizatu eta eraiki batean egingo denez egin ere, eta ez dagoenez nabarmentzeko moduko ingurumen elementurik, inpaktuak ez direla handiak izango jotzen da.

Aurreko hori gorabehera, ingurumenari loturiko beste maila eta mota bateko oharrak egin behar dira txosten honetan ebaluatzen den aldaketa puntualan aldatu nahi diren hirugarren eta laugarren gaien buruz; alegia, alde batetik, berrantolatzea 8 poligonoko 71 lurzatiaren kalifikazioa eta hori baliatzea basoak leheneratzeko partzuergoetako bati esleitutako azalera handitzeko eta, beste aldetik, aldatzea ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren parametro estetikoak. Azken horri dagokionez, eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatu honen barruan Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egindako alegazioen arabera parametro estetikoak aldatu nahi zaizkion eremua hiri multzoa denez eta haren berezitasunaren balioa udal plangintzak nabarmendu behar duenez, gai horri buruz aipatutako zerbitzuak baliatutako ondorioei lotuko gataizkie: Hots, parametro estetikoak malgutzeko proposamenak epe luzera ez duela ekarriko hiri multzoa hobetzerik eta, horren orde, sakonago aztertu beharko liratekeela gaur egungo eraikinen elementu arkitektonikoak (zokaloak, eskailerak, erlaitzak, baoak, lurzati itxiturak...), bolumentria eta lurzatiko okupazioa, luzaroan iraun beharko luketen baldintza aldagaitzak zehazteko helburuarekin.

Bestalde, 8 poligonoko 71 lurzatiaren kalifikazioa berrantolatzeari eta hori basoak leheneratzeko partzuergoetako bati esleitutako azalera handitzeko baliatzeari gagozkiolarik, ohar desberdinak egin behar dira, aldaketa puntuala onestearen ondorioz elementu nagusietan eta ingurumen balioetan sortuko liratekeen ingurumen inpaktu nagusietan oinarrituta.

8 poligonoko 71 lurzatiak 4.800 m²-ko azalera baino handixeagoa du eta Eltziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinaren barruan dago. Finka horren azaleraren zatirik handienak kalifikazio hau dauka: "Nekazaritza interesa dela eta babestutako zona – Nekazaritza eta abeltzaintza eremuak eta landazabala –Trantsizioko landa paisaiako eremuak". Gainerakoa ipar-ekialdeko zonan dago, 1.000 m² inguruko azalera dauka eta "Babes bereziko zona: basogintzako balioa" kalifikazioa.

Jotzen da babes berezia duen aldeak kalifikazio hori duela abarizti (*Quercus coccifera*) txiki bat dagoelako, zeina eskualdeko landaredi autoktonoaren zati baita. Finka okupatzen duen muino txikiaren goiko aldean dago, eta jarraipena ematen diote aldaketa puntualaren eremutik kanpo dauden bi bizkarrek; haietan ez dago mahastirik, baina bai albiziak (6220* Europar Batasunaren intereseko habitata) eta zuhaixka autoktonoak; haien artean, nabarmentzekoak dira beste abaritz ale batzuk. 71 lurzatiaren eragin eremuan dauden bezalako landaredi autoktonoaren gordelekuak egotea oso garrantzitsua da Arabako Errioxa bezalako eskualde batean, gordeleku horiek babesa ematen dietelako fauna espezie askori eta haien arteko ekologia lotura ahalbidetzen dutelako. Beraz, alderdi horrek berebiziko garrantzia dauka hain antropizatuta eta esku hartuta dagoen eskualde horretan.

Sustatzaileak adierazi duenez, ortoargazkiei eta tokira bertara egindako bisitei esker, egiaz-tatu da lurzatiaren 500 m² inguruko eremuan biltzen dela batez ere abariztia, eta ez HAPOk o lurzoru urbanizaezinaren zonakatze planoetan ezarritako 1.000 m²-ko azalera. Hori ez dator bat errealitatearekin, benetakotzat hartzen baitira hirigintza plangintzan jasotako gaur egungo abariztiaren 1.000 m²-ak. Horiek horrela, egokitze jotzen da birdoitzea "Babes bereziko zona: basogintzako balioa" zonako "orbana", gaur egungo abariztiak eratzen duen baso eremua babestu dadin.



“Babes bereziko zona: basogintzako balioa” zonaren mugaketa berria, Ingurumen Organoak hirigintza plangintzan sartzeko proposatua, gaur egungo errealitatearekin bat etorritz.

“Babes bereziko zona: basogintzako balioa” zonaren grafia berriarekin, eremu horren hirigintza plangintzan jasota dauden gaur egungo 1.000 m²-ak mantenduko lirateke, baina “orbana” egoera errealer birdoituko litzateke; hartara, inguruko mahastiak sartu ahalko lirateke dagokion nekazaritza kategorian eta, hortaz, haien legezko egoera faboratuko litzateke, plangintzarekin bat etorritz.

Plangintza horrekin helburu bikoitza lortzen da: batetik, abariztia kontserbatzea eta hirigintza plangintzan benetako egoerara birdoitzea; eta, bestetik, abariztiaren inguruko mahasti guztiak nekazaritza jarduerarekin bat datorren lurzoru urbanizaezineko kategorian sartuta geratzea.

Horren harira, berdin atxiki beharko litzaioke 10 poligonoko 288 lurzatia basoak leheneratzeko 325 zenbakiko partzuergoari, txosten honen hurrengo epigrafean ezarritako eran.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen Agiri Estrategikoan proposatutako neurriak “Eltziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2. aldaketa puntuala”ren hirigintza agirian jasotzeaz gainera, egokitzat jotzen da zuzentze neurri gehigarri hauek sartzea, denak aldaketa puntualaren garapenak sortzen dituen eraginak gutxitzera bideratuak:

- “Babes bereziko zona: basogintzako balioa” zonako “orbana” birdoituko da gaur egungo abariztiak eratzen duen baso eremua babesteko moduan, eta irudi honetan jasotakoari jarraituz:



“Babes bereziko zona: basogintzako balioa” zona berria, Ingurumen Organoak hirigintza plangintzan sartzeko proposatua, gaur egungo errealitatearekin bat etorritik.

- Sustatzaileak proiektu teknikoak aurkeztu beharko du, eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi beharko du. Agiri horretan zehaztu beharko dira Eltziegoko 10 poligonoko 288 lurzatian, gutxienez 1.045 m²-ko azalera eremuan, egin beharreko landaketa jardunak eta ingurumena eta paisaia hobetu eta lehengoratzekoak. Lurzati hori “Trantsizioko landa paisaia” izatetik “Basogintza interesa dela eta babestutako zona” izatera igaroko litzateke hirigintza plangintzan, eta basoak leheneratzeko 325 zenbakiko partzuergoari atxikiko litzaioke. Proiektu tekniko horretan zehaztuko da zer obra unitate behar den eremu hartan egon daitekeen landaredia berreskuratzeko, artea (*Quercus ilex*, *rotundifolia azpiespeziekoa*) edo abaritz (*Quercus coccifera*) eta haiekin lotutako zuhaixkak landatuz.

- ELC.05 antolamendu xehatuko eremuaren parametro estetikoak aldatzeari dagokionez, aztertu beharko dira ondare historiko-arkitektonikoaren arloan eskumena duen organoak egiten dituen balorazioak eta zehaztapenak, baldin halakorik egiten badu.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eltziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA